




Sagardoa botilan

Ilargiaren eraginpean



Jose Mari MARTINEZ

Ilargiak berebiziko eragina du sagardogintzan.

Inork ez du gaur egun zantalzan jartzen hainbat eta hainbat mugimendutan, itsasoarenean esaterako, ilargiak duen eragina. Euskaldunak sinetsi egin

du eta sinesten du satellite honen eragin onuragarrian eta bere zikloak kontuan hartzen dira haziak eritean, arbolak kimatzean edota sagardoa egitean.

Esoterismoan sinesten dutenek adierazten duten arabera, eragin horren aztarnak giza sentimenduetan sumatzen badira, pasioetan nahiz amodioan, zergatik ez dira sumatu behar sagardoan?

Ilargiak sagardogintzan eragina duela aspaldidanik diote sagardozaleek. Sagardogintzaren sekretuak arbasoengandik jaso dituzte sagardozaleek belaualdiz belaualdiz eta badakite kupelak ilbeheran itxi behar direla, ilgoran egin ez gero, tapiiak lehertu egiten baitira ilargi berriarekin.

Muztioaren kupelaren barneko mugimendua nabarmenagoa da irakinaldiaren garaian, bigarren fasez hartzen den horretan nagusiki. Garai bateko egurrezko kupleetan, itoginak egon daitezke egurren bat okertuta dagoelako, eta ilgoran, nahiz eta seboa jartzen zaien iteketo, itoginen bat izan dezakete. Itogin horiek, aldiz, desagertu egiten dira ilbetearen ondoren ilbehera hasten delarik.

Joxe Uriak, sagardogintzaren inguruko lanik osatuena egileak, esperimentu bat egin zuen 1976an kupelaren barneko

Ez dago ilargiaren eragina kontuan hartzen ez duen sagardozalerik, irakinaldian bezala botilaratze-prozesuan ere

soinuak entzun ahal izateko tresna bat erabiliz. Ilargi berriaren hiru egun aurretik eta hiru egun ondoren egin ziren neurketa horiek eta emaitzak oso deigarriak izan ziren. Ilbeherako lehen egunean bi

dezibelio erregistratu zituen eta sei egunen buruan, ilgoran, berriz, sei dezibelio. Zarataren igoera nabarmen hori ez zetozen bat irakinaldi-prozesuarekin, hau txikiagoa izanik, alderantzizko emaitza espero baitzitezkeen.

Ez dago ilargiaren eragin horiek kontuan hartzen ez dituen sagardozalerik, irakinaldian bezala botilaratze-prozesuan ere.

Usadioz, botilaratzea ilbeheran egin behar da, baina arau hori ez da beti betetzen. Esperientzia handiko sagardozale batzuek diotenez, Hernaniko Jose Antonio Gaineraiek kasu, «garrantzitsuena sagardoa botilaratzen denerako ondo egina egotea da. Horrela bada, ilargiak ez du eragin handirik izango. Esan egiten da, baina bete, ez dakit zenbatek egiten duen. Nik edozein garaitan botilaratzen ikusi izan dut».

Conny BEYREUTHER

Jose Mari MARTINEZ

EIZMENDI

Sagardotegia



Osinaga Auzoa • ☎ 943 55 64 05 • HERNANI